



PROFESIONALENDAKO EGUNA - URRIAREN 11A, OSTIRALA

Sarako leizeetako harrera gela (goiza) & Kiroldegia (arratsaldea)

Hizkuntza: Euskaraz, bat-bateko itzulpenarekin frantsesera (kaskoekin)

Izen ematea (beharrezkoa): Maia ETCHANDY - maia.etchandy@eke.eu

Inplizitua haur eta gazte literaturan: argiki adierazia ez dena asmatu eta ulertu

Zerbait inplizitua dela erraten denean, beste zerbaiten baitan dagoenaz ari gara, azaldu edo adierazia ez dena. Eduki inplizitua orokorki literaturan eta bereziki haur eta gazte literaturan aintz erabilia den baliabide literarioa da. Inplizituarekin sortzaileek, izan idazle edo ilustratzaile, beste bide batzuek eskaintzen dizkiote irakurleari bere baitan dituen erreferentzien bidez istorioa ulertzeko edo argiki adierazia ez dena interpretatzeko. Mezuak pasatzeko tresna paregabea da ere: ipuinaren bukaerako morala, irakaspenak, baloreak, ...

EGITARUA

📍 Sarako leizeetan - harrera gela

9:00 : Harrera

9:30 : 2024ko urteko Haur & gazte literaturako berritasunak eta hautaketa berezia Ana Imaz (Libreplume) & Elise Dilet (Ikas)

2024 urtean zehar zer argitaratu da euskaraz haur eta gazteentzat? Urteko argitalpenen hautaketa baten aukezpena. Bestalde aurtengo gaiarekin lotzeko, urteetan mezu eta balore inplizitua batzuek barneratu dituzten argitalpenak aurkeztuko dira.

11:00 – 12:30 : Artisten aurkezpenak

Zer programatu mediateketan edo ikastetxeetan haurrentzat literaturaren inguruan?

Haien lanen aurkezpen labur batzuen bidez, artisten proposamen artistikoak ezagutzeko hitzordua: ipuinaldi, topaketa, sakeleko antzerki, idazketa tailer, ...

12:45-14:45 : Bazkaria (Pleka ostatuan)

📍 Kiroldegian

15:00 : Azokaren itzuli librea

16:00 : Mahai ingurua

Kontakizunen irakaspenak: mezu esplizitu eta inplizituak euskarazko haur eta gazte literaturan - Ainize Madariagak animaturik

Mahain inguru hortan, sortzaile eta aditu batzuek bilduko dira inplizitua haur eta gazte literaturan nola landua, pentsatua eta gogoetatua den aipatzeko.

Parte hartzaileak: Eztitxu Albistur (ikerlaria), Ainara Azpiazu Aduriz "Axi" (ilustratzailea), Mirentxu Ibargarai (Haria egitasmoa), Carmen Elvira (Pamiela-Kalandraka) eta Aintzane Usandizaga (idazlea)

